


# Kutxabank publiko eta soziala-9. berripapera-2016 Abendua

## 1. Banka Publikoari buruzko jardunaldia 16an, ostiralean, Bizkaiko Batzar Nagusien Aretoan



Aurrezki Kutxekin estatuan izan dugun nolabaiteko banka publikoa desagertzeko abian jarritako politika gelditu beharra dago. Ez dugu ahaztu behar, Alemanian, Frantzia, Holandan eta estatuan ere betidanik egon den sistema erdipublikoa (aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak) Europako eredu sozioekonomikoaren oinarria izan dela.

Jardunaldian gai honi buruz dauden azken albisteak eta oraingo egoera aztertuko da: EAEn Kutxabankekin, Nafarroako proiektua eta estatuko egoera (Bankiarekin eta Andaluzian landu den proposamena). Arratsaldean alderdi eta sindikatuek gai honi buruz duten ikuspegia azalduko dute.

Jardunaldiaren antolatzailea *Ekoneus* ekonomia elkarte da eta *Kutxabank Publikoa Plataformak* ekimen hau babesten du. Plataforma hau sindikatuek (EHNE – HIRU – ELA – LAB – ESK – STEILAS – CNT) eta gizarte eragileek osatzen dute (AHT Gelditu, Berri Otxoak, Bilboko Auzo Elkartearen Federazioa, Denok lan, Pentsionisten Plataformak, Ezker Gogoia, IRPH Stop, Kontsumitzaileen elkarteak, M15, REAS, PAH Kaleratzerik ez!, STOP desahucios).

[Banka Publikoa: Jardunaldia](#)

## 2. Mozioak Bilbo, Donostia, Gasteiz eta hiru Batzar Nagusietan Kutxabank publikoaren alde



*Kutxabank Publikoa Plataformak* mozio bana aurkeztu zuen hiru hiriburuetako udaletan eta hiru batzar nagusietan. Zoritxarrez ez ziren onartu baina eztabaida interesgarria egoteko aukera egon zen: patronatu ez demokratikoak, akzioak ez daude erakunde publiko sortzaileen izenean... [Mozioak](#)



## 3. Nor agintzen du Kutxabanken?



Kutxabanken Administrazio Kontseiluan aldaketak egin dira baina lehen bezain antidemokratiko jarraitzen du: EAJ-PNVri, foru hauteskundeetan emaitzen arabera 5 ordezkari dagozkie baina 10 dauzka, PSOEk 2 dagozkie eta 3 dauzka, PPri 1 dagozkie eta 2 dauzka. Bestetik Bilduri 3 eta Ahal Dugu-Podemosi 2 dagozkie eta ez daukate bat ere ez... BBK eta Vitaleko patronatuetan aldaketak egin dira eta berdin. [Demokrazia?](#)

## 4. Apirilean zoru klausulak betiko ezabatuta geratu ziren



Bankuek bezeroei iruzurra eginez kobratu dieten 5.200 milioi estatu osoan itzultzen ari dira, apirilean zoru klausulak ilegaltzat hartu ondoren. Lorpen hau ez da kasualitatez izan. Atzean mugimenduak egon dira, jo eta ke lanean, arlo guztietan, baita judizialean ere eta horien artean ADICAEri zorionak eman genizkien, eta berau ordezkatzeko Manuel Pardori, lortutako garaipenagatik. [Zorionak Adicae](#)

## Boletín 9 - Kutxabank publiko eta soziala – Diciembre 2016

### 1. Jornada sobre la Banca Pública este viernes día 16 en el salón de las Juntas Generales de Bizkaia

Es conveniente paralizar el proceso de desaparición de la banca pública que hemos tenido, de alguna forma, con las cajas de ahorro en el estado. No debemos olvidar que tanto en Alemania, como en Francia u Holanda y en el estado, el sistema financiero semipúblico (cajas de ahorro y cooperativas de crédito) son la base del modelo socioeconómico europeo donde conviven sistemas financieros públicos y privados. Dicho modelo es

mucho mas adecuado, por ejemplo, que los modelos de los países donde predomina el modelo bancario anglosajón donde el 100% de las entidades financieras son privadas.

En la Jornada se va profundizar en la situación actual: Kutxabank en la CAV, el proyecto de Navarra, la situación en el estado con Bankia y la propuesta de Andalucía. A la tarde varios partidos y sindicatos darán su visión sobre este tema. En esta jornada se va a remarcar la importancia de la banca pública y las posibilidades de recuperarla. [Jornada-sobre-banca-pública](#)

## **2. Mociones en Bilbao, Donostia, Gasteiz y en las Juntas Generales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa**

La *Plataforma Kutxabank Publikoa* ha presentado una moción en cada una de las tres capitales y juntas para defender el carácter publico de Kutxabank. Por desgracia no fueron aprobadas pero sirvieron para dar a conocer mejor la situación actual: patronatos no democráticos, las acciones no están a nombre de las entidades fundadoras ... [Mociones](#)

## **3. ¿Quién manda en Kutxabank?**

Este verano han cambiado varios miembros en el Consejo de Administración de Kutxabank pero sigue siendo igual de antidemocrático: según los votos de las elecciones forales a EAJ-PNV le corresponderían 5 miembros y tiene 10, al PSOE 2 pero tiene 3, al PP 1 pero tiene 2. Por otra parte a Bildu le corresponden 3 y a Ahal Dugu-Podemos 2 pero no tienen ninguno. En los patronatos BBK, Vital y Kutxa pasa igual. [¿Democracia?](#)

## **4. En abril quedaron anuladas para siempre la cláusulas suelo**

Ekoneus felicitó a ADICAE y a su representante Manual Pardo por la gran victoria contra los bancos para anular las cláusulas suelo con las que robaron a sus clientes 5.200 millones. Está claro que los derechos se logran o mantienen a base de luchar por lo que es de todos y todas. [Felicidades-adicae](#)

**Ekoneus Elkartea: gizartearentzako ekonomiaren alde**

**Ayúdanos a ayudarte: [ekoneus@gmail.com](mailto:ekoneus@gmail.com)**